



Esp. zk.: SUBV_CON_COMPET/2026/6

KULTUR ANIZTASUNeko 2026ko DIRULAGUNTZA-DEIALDIA

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honen B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa. Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak hasiera batez onetsi zuen ordenantza hori 2005eko azaroaren 3an hartutako erabakiaren bidez, eta erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean inork erreklamaziorik aurkeztu ez zuelako. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri.** ([2006ko 21. NAOn, otsailaren 17koan, argitaratua](#)).

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emaila:	Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako eta Kultur Aniztasuneko zinegotzi ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako eta Kultur Aniztasuneko Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko idazkaritza teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Irabazi-asmorik gabeko Iruñeko elkarteei eta beste entitate batzuei dirulaguntzak ematea, 2026an proiektuak eta jarduerak egin ditzaten kultur aniztasunaren esparruan, Iruñeko udalerrian.

Ildo horretan, haxe da kultur aniztasuna: irabazi-asmorik gabeko elkarte eta/edo erakundeek sustatutako ekimenak Iruñean askotariko kultur komunitateen parte-hartze aktiboa bultzatzeko; ekimenak bultzatzea, gizartea kultur aniztasunak duen garrantziaz sentsibilizatze aldera eta aniztasun horrek aberaste kolektiboari egiten dion ekarpenaz, eta diskriminazioari, arrazismoari eta gizarte-bazterketari aurre egitea, jatorria edozein dela ere pertsona guztiekiko errespetua, eskubide-berdintasuna eta parte-hartze aktiboa sustatzen duten proiektuen bidez, eta aldi berean genero-berdintasuna bermatuta egotea.

Hauexek izanen dira proiektuen helburuak:

- Nafarroako eta beste eskualde batzuetako aniztasuna Iruñean ordezkatzan duten entitateek aurkeztutako proiektuei dagokienez, herri-kultura sustatzea, sortzea eta hedatzea, bitarteko horren bidez lortze aldera topaketa kulturala eta elkarbizitza aisialdiaren eta denbora librearen arloan (gizarte eta kulturaren, gizarte eta hezkuntzaren eta gizarte eta komunitatearen esparruan), lurraldeko gizarte-ehunaren parte-hartzea abiapuntu hartuta eta herritar guztiei zabalik.
- Kultura- eta jatorri-aniztasunaren parte-hartzea, harrera, sentsibilizazioa, sustapena, sorkuntza eta hedapena, elkarriketa, elkarbizitza eta desberdinei errespetua erakusteko estrategia gisa, beste toki batzuetatik datozen pertsonen eta kolektiboen parte-hartzea eta ahaldundutzea bultzatzeko udalerriaren bizitzan.

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal dena.





2. Deialdiaren helburua:

Deialdiaren xedea da babestea eta indartzea jatorri kultural, etniko eta sozial desberdinak dituzten pertsonen inklusioa, bizikidetzatza, errespetua eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duten irabazi-asmorik gabeko elkarteak eta/edo erakundeak lana.

3. Diruz laguntzen ahal diren ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:

Deialdi hau zuzenduta dago 2026. urte osoan hirian kultur aniztasunaren esparruan egiten diren proiektuak, jarduketak eta prestakuntza diruz laguntzera.

Deialdi honetara aurkeztutako ekintza guztiek honako ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

- Jarduerak interes kolektiboko helburu edo proiektuaren bat garatzearekin lotuta egon beharko dute.
- Ekintzek parte-hartzaileak aktiboki eta zuzenean parte hartzea sustatu behar dute eta gainerako herritarrei irekita egon behar dute. Baldintza horiek betetzen ez dituen erakundearen ohiko jarduna ez da finantzatu.
- Jarduerak edo proiektuak garapen pertsonala, taldekoa eta komunitarioa sustatuko dute, inguruko arazo ekonomikoak, ingurumenekoak eta sozialei erantzuna emanez eta bizi-baldintzak hobetuz.
- Jarduerak parte-hartzaileak ahaldu behar dituzte, eta haien bizi-kalitatea hobetuz eta parte-hartze handiagoa lortuz eragin behar dute.

Deialdi honen, eta Udalaren gainerako deialdien izaera kontuan harturik (kultur entitateendako, LGTBI, berdintasun, aisia eta denbora libreko eta gizarteratzeko proiektuendako Udalaren dirulaguntzak), zehazki esparru horiek ardatz dituzten proiektuak dirulaguntza horietara aurkeztu beharko dira, eta deialdi honetatik kanpo uzten ahalko dira teknikariak uste badute, lehen aipatutako puntuekin bat, haien helburua ez dela deialdi honi dagokiona.

Aurkeztu diren proiektuak 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra egin beharko dira.

Irabazi-asmorik gabeko elkarte edo entitate bakoitzak PROIEKTU BAKARRA aurkeztu

ahalko du. Jarduketak prezioak:

Prestakuntza-jarduketak eta diruz lagundutako jarduerak doakoak eta irekiak izan daitezke, ahal dela. Jardueran parte hartzeko prezio bat ezartzen bada, erakunde onuradunak eskabidean azaldu beharko du proiektuan doakoa ez den jarduerari hori egiteko beharra, eta dirulaguntza kudeatzen duen unitateak ontzat eman beharko du.

Deialdi honetatik AT geldituko dira, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 5. artikuluko baldintzak betetzen ez dituztenek gain, honako proiektu eta jarduerak hauek:

- 1.- Oro har herritarrei irekita ez dauden programa, proiektu, jarduerak eta jarduketak edo edozein motatako irizpide sexista, arrazista, xenofobo eta diskriminatzaileak aplikatzen dituztenak.
- 2.- Deialdiaren xedearekin bat ez datozen programa, proiektu, jarduerak edo jarduketak, edo Udalaren berariazko bestelako deialdi batean jasotako helburuei eskubideak ez badira.
- 3.- Giza eskubideak eta bizikidetzatza-balioak errespetatzen ez dituzten proiektuak eta jarduerak, edo herritarrendako iraingarriak gertatzen ahal diren sinbolo zein elementuak dituztenak, haien duintasuna urratzen dutenak edo indarkeriaren justifikazioa iradokitzen dutenak, baita izaera politikoko jarduerak ere. Kanpoan geratuko da alderdi edo federazio politikoen publizitatea.

Bide publikoan egin eta Udalaren baimena behar duten jarduerak, proiektu eta jarduketak ororendako ezinbesteko betekizuna izan da indarreko araudian ezarritako ingurumen- eta gizarte-jasangarritasuneko neurriak betetzea.

Zehazki, Ekitaldi Publikoak eta Jasangarritasunari buruzko apirilaren 17ko 36/2024 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat etorri beharko dute,



baita 'Ekitaldi jasangarrietarako gida: Iruña, etorkizun arduratsu eta kontziente baterantz' gidako jarraibideak bete ere.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 50.000 €

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 80/32700/482090

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Dirulaguntzak estaliko du eskatu eta onetsitako aurrekontuaren ehuneko jakin bat, zeharkako gastuak barne. Jardueraren kostu osoaren eta diru-sarreraren arteko diferentzia izanen da defizita, eta azkenean, hori izanen da deialdi honetan eskatuko den zenbatekoa. Dirulaguntzak ezin izanen du gainditu, inolaz ere, proiektuaren/jardueraren kostu osoaren % 75, eta entitateak kostuaren % 25 ordaindu beharko du gutxienez, dela funts propioen bidez, dela beste dirulaguntza batzuen bidez. Dirulaguntza honako irizpide hauen proportzioan emanen da: lortutako puntuazioa, diruz laguntzen ahal den aurrekontuaren gehieneko kopurua (VIII. eranskina) eta proiektua edo jarduera zein tartetan egon eta tarte horretako gehieneko puntuazioa, betiere erabilgarri dagoen aurrekontuaren arabera. Hona hemen dirulaguntzak emateko ehunekoak, bost epigrafeetarako:

50 eta 59 puntu bitarte. Onartutako aurrekontuaren % 50

60 eta 69 puntu bitarte. Onartutako aurrekontuaren % 60

70 eta 79 puntu bitarte. Onartutako aurrekontuaren % 70

80 eta 89 puntu bitarte. Onartutako aurrekontuaren % 80

90 eta 99 puntu bitarte. Onartutako aurrekontuaren % 90

100 puntu. Onartutako aurrekontuaren % 100

Proiektu/jardueren puntuazioekin loturiko portzentajeak dira diruz laguntzen ahal diren gehieneko mugak; hortaz, ehuneko horiek baino gutxiago ematen ahal da, balorazioa bera eta aurrekontuaren eskuragarritasuna direla-eta.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da 10.000 € baino gehiagokoa izanen.

4. Hainbanatzeko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu:

Eskatzaileendako kalkulaturako dirulaguntzen guztizkoak gehienez ezarritako zenbatekoa gainditzen badu, entitate onuradun bakoitzari dagokion zenbatekoa proportzionalki kalkulatu da onuradun guztien artean.

5. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

6. Urtekoak:

Urteko arrunta:	50.000 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:





Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

NORGEHIAGOKAKO

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal dena.



008958481302628991023

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

a) Legearekin bat eratutako pertsona juridikoak izatea, eta dagokien Erregistroan izena emanda izatea, eskaera aurkezteko mugaegunean, betiere indarra duten legeekin bat baldintza hori eskatzen ahal bada. Dokumentazio hori egunean eduki beharko dute.

b) Irabazi-asmorik gabekoa izatea.

c) Egoitza soziala Iruñean edukitzea.

d) Diruz lagundutako programa, proiektu, jarduera edo jarduketa osorik Iruñeko udal-mugartean egitea.

e) Proposatutako helburuak betetzeko behar bezalako egitura edukitzea jada jardunean, eta horiek lortzeko beharrezko ibilbidea, esperientzia eta gaitasuna egiaztatzea.

f) Aurkeztutako proiektu eta jardueretarako erantzukizun zibileko aseguruia izatea, eta boluntarioendako istripu-aseguruia, indarreko legediarekin bat.

g) Sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituak edo gizakien salerosketakoak egin ez izana, adingabeekin ohiko kontaktua izatea dakarten jarduerak egiteko.

h) Egunean izatea Iruñeko Udalaren aurrekontuen kargura emandako aurreko dirulaguntza-deialdietan ezarritako betebeharrak.

i) Egunean izatea Gizarte Segurantzari eta zergei dagozkien betebeharrak. Kobratzeke dauden zorrez bezainbatean, dirulaguntzan emandako diruarekin konpentsatzeko aukera egonen da.

j) Indarrean dagoen araudiak eskatutako gardentasun betebeharrak betetzea.

(*) Aipatutako baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

Berariaz honako hauek daude deialdi honetatik AT:

- Irabazi-asmoa duten enpresa, entitate eta pertsona fisiko zein juridikoz osatutako pertsona-taldeak.
- Deialdiaren xedearekin bat ez datozen programa, proiektu, jarduera edo jarduketak aurkeztu dituzten elkartek eta lagun-taldeak, edota horiek Udalaren bestelako deialdi batean jasotako helburuei zuzendutakoak badira.
- Zehapen administratibo edo penal irmo baten xede izan diren pertsonak, dagokien zehapenak ezarritako epean sexu-zioak direla eta diskriminatzeagatik.

Dirulaguntza-deialdira aurkezteko informazio-, laguntza-, orientazio- eta aholkularitza-zerbitzu bat behar duten pertsona eta entitateek alor kudeatzailearengana (Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorra) edo Zentrora (Kondestable Civivoxa, 2. solairua, 948 420 266) jotzen ahal dute.



Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:

☐ BAI ☒ EZ

Salbu zorrak konpentsatzea, halakorik balitz.

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharra dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharra:

☒ BAI ☐ EZ

a) Dirulaguntzaren xede den helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo jokabideari heldzea. Jarduera Iruñeko lurralde-esparruan egingen da (egun bakarreko txangoetan izan ezik), eta jarduera hori egiteko gaitasuna duten pertsonak koordinatu eta garatuko dute.

b) Behar bezalako publizitatea egitea, dirua zer programa, proiektu, jarduera edo jarduketarako jaso eta horiek Iruñeko Udalak osorik edo hein batean finantzatu dituela jakitera emate aldera. Betebihar hori dirulaguntza ematen den unean eskatuko da. Nolanahi ere, dirulaguntza eman aurretik egindako jardueretan, erakundeak eskura duen edozein bitarteko erabiliz egin beharko du Iruñeko Udalak jarduera finantzatu duela jakinarazteko publizitatea.

c) Iruñeko Udalarai baimena eta laguntza ematea diruz lagundutako programaren, proiektuaren, jardueraren edo jarduketaren garapena hedatzeko, xede harturik herritarren partaidetzaren arloko jarduketak bultzatzea. Diruz lagundutako programa, proiektu, jarduera eta jarduketaren harira prestatutako jarduketak, materialak eta hedapen- zein sentsibilizazio-kanpainak diversidadcultural@pamplona.es helbidera igorri behar dira, edo, bestela, prestakuntza-ekintzak abiarazi aurretik unitate kudeatzaileak hedapen- eta dokumentazio-zereginetarako ezartzen duen helbidera.

d) Harremanetan eta koordinaturik egotea Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako eta Kultur Aiztasuneko Alorrarekin, alor kudeatzaileko teknikarien bitartez, proiektuak iraun bitartean.

e) Bide ematea Alorreko teknikariek eskatzen dituzten elkarte edo entitateetara bisitak egiteari, programa, proiektu, jarduera edo jarduketaren jarraipena egin eta parte-hartzaileei programaren eta Udalaren baliabideen berri emate aldera.

f) Organo emailearen aurrean justifikatzea, justifikazio-txostenak aurkeztuta, baldintzak eta betekizunak bete dituztela, bai eta diruz lagundutako programa, proiektu, jarduera edo jarduketak egin direla eta dirulaguntza zertarako izan eta helburu hori bete dutela ere.



- g) Memoria bat egitea, programa, proiektu, jarduera edo jarduketaren gainean. Behin betiko memoria eta justifikazio-agiriak aurkezteko epea 2027ko urtarrilaren 31n amaituko da. Salbuespenez, egun horretarako jarduera guztiak amaituta egon ezean, behin-behineko memoria eta data horretara arte egindako jardueren egiaztagiriak aurkeztu beharko dira, aipatutako epea amaitu baino lehen.
- h) Men egitea organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jarduketei, bai eta kontrol-organoko eskudunek egiaztatzekei zein finantzaketa kontrolatzeko egiten ahal dituzten beste guztiei ere, betiere jarduketa horien ondorioz eskatzen dizkieten argibideak oro eman beharko dituztelarik, halakoak udal-fitxategietan jasota egon ezean.
- i) Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik lortuz gero, horren berri ematea organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egingen da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.
- k) Kontabilitate-liburuak, erregistro eginbidetuak eta gainerako agiriak edukitzea, behar bezala betetarik eta eguneraturik entitate onuradunari kasuan-kasuan aplikatzen ahal zaizkion merkataritzako legeek eta lege sektorialekin ezarritakoarekin bat.
- l) Gordetzea jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak –agiri elektronikoak barne–, egiaztapen- eta kontrol-jarduketaren xedea izan daitezkeen neurrian.
- m) Iruñeko Udalarik jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabar, betekizun eta baldintzetan gertatzen diren aldaketak oro, eta, behar izanez gero, hari behar den baimena eskatzea. Proiektu bat aldatzeko eskaera aldaketa justifikatzen duten inguruabarrak gertatu eta berehalakoan aurkeztu behar da, eta betiere aldaketak sartu baino lehenago, deialdi honen F) apartatuan adierazitakoaren arabera.
- n) Unitate kudeatzaileari jakinaraztea proiektua garatu bitartean entitate eskatzailearen edo eskatzaileen nortasun juridikoan izandako aldaketak: estatutuak, entitatearen legezko ordezkaria, etab.
- o) Jasotako zenbatekoak itzultzea, hala deialdi honen Q) apartatuan nola Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean adierazitako gainerako kasuetan.
- p) Prestakuntzen kasuan, bertaratze-agiriak ematea ikastaroa behar bezala amaitu duten ikasleei. Agiri horietan Iruñeko Udalen logotipoa agertuko da, eta horrekin batera testu hau: "Laguntzailea: Iruñeko Udala".
- q) Material, irudi eta agiri guztiek emakumeen irudi baztertzailerik gabe izan beharko dute, eta berdintasun balioak, rol askotarikoak eta emakumeen eta gizonen arteko erantzunkidetasuna sustatu beharko dute.
- r) Testu guztiek hizkuntza ez-sexista erabiliko dute.
- s) Gardentasun-betebeharrak dirulaguntza publikoak jasotzen dituzten entitateendako. Deialdi honen kargura onuradun diren entitateek gardentasun-betebeharrari buruzko Adierazpena aurkeztu beharko dute, izapidearekin edo honekin batera doan VI. ERANSKINAREN ereduarekin bat (salbu Udalen beste dirulaguntza-deialdi batean aurkeztu bada). Adierazpen hori dirulaguntzak justifikatzeko agiriarekin batera aurkeztuko da, eta oinarri hauetako P.2 apartatuan horretarako ezarritako epearen barruan. Kasu horretan, zein deialditan aurkeztu den adierazi beharko da, eta kontsulta egiteko baimena eman.



t) Betetzea Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta pertsona fisikoak datu pertsonalen tratamenduaren arloan babesteari eta datu horien zirkulazio libreari buruz Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2016ko apirilaren 27ko (EB) 216/679 Erregelamenduan ezarritako lege-ohartarazpenak.

u) Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57. artikuluan ezarritako baldintza betetzeko betebeharra.

v) Bide publikoan eginen den jarduera orok ekitaldiaren Jasangarritasun plan bat aurkeztu beharko du, apirilaren 17ko 36/2024 Foru Dekretuan, Ekitaldi Publikoei eta Jasangarritasunari buruzkoan ezarritakoarekin bat. 'Ekitaldi jasangarrietarako gida: Iruña, etorkizun arduratsu eta kontziente baterantz' gida entitateek ekitaldien jasangarritasuna hobetzeko tresna da, eta Iruñeko Udalak entitateen esku jartzen du, honako esteka honetan:

<https://www.pamplona.es/eu/eventos-sostenibles>

w) Ekitaldia hedatzean hartutako jasangarritasun neurriak jakinaraziko dira (hala nola 'Plastikorik gabeko ekitaldia', 'Garraio publikoan etortzea gomendatzen da').

x) Bide publikoan musika edo megafonia barne hartzen duten ekitaldietan, zorrotz betetzea okupazio-baimenean ezarritako emisio akustikoko mugak eta ordutegiak, eta soinu-inpaktua minimizatzea auzoan.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea eta hedapena emanen dizkiote dirulaguntzaren xede diren jarduera edo proiektuen udal-finantzaketaren izaera publikoari. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko dute komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da, gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitateari dagokionez, honako lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatzutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 29.4 artikularekin bat: BAI ☒ EZ ☐
Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:





Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Aurreikusi gabeko inguruabarrak direla medio, aldaketak egiten ahalko dira proiektu edo jardueretan, hasierako aurreikuspenei dagokienez, inguruabar horiek kontuan hartzekoak badira jarduketa zuzen betetzeko eta aldaketa horiek ez badute eragiten funtsezko aldaketarik (izaera edo helburuei dagokienez) proiektuan edo jardueretan. Aldaketek ez dakarte berriz formulatu behar izatea, eta beraz, behin emanda ezin izanen da dirulaguntzaren zenbatekoa aldatu, eta horregatik, (eskatzen badira) eskatutako eta onartutako aurrekontu osoa justifikatu beharko da, zeharkako gastuak barne; eta beste kasu batzuetan, dagokion zatia itzuli beharko da.

Aurretiko baimena beharko da baldin eta aldaketek ukitzen badituzte programaren, proiektuaren edo jardueren helburuak/xedeak eta proiektuaren hartzaille diren pertsonak eta/edo hasiera batean aurrekontuan sartutako kontzeptuetakoren batean % 20ko aldaketa dakartenak. Aldaketa horiek baimenduko dira, baldin eta eraginik ez badute aplikatutako balorazio-irizpideetan. Horretarako, pertsona edo entitate onuradunak eskaera arrazoitua aurkeztu beharko dio, idatziz, Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako eta Kultur Aniztasuneko Alorreko unitate kudeatzaileari, proposatutako aldaketa egiteko beharra justifikatuz, aldaketak sartzeko beharraren berri izan eta berehala, eta betiere aldaketak sartu baino lehenago eta diruz lagundutako programa, proiektua, jarduerak edo jarduketak egiteko epea amaitu baino lehen.

Baldin eta proiektua garatzen den bitartean entitate onuradunak sartzan baditu deialdi honetan ezarritakoarekin bat aldeztu aurretik baimendu gabeko aldaketak, zilegi izanen da jasotako diru-kopuruak itzularaztea, osorik edo hein batean, edo, hala badagokio, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galtzea, osorik edo hein batean. Proiektuaren barruan hainbat jarduera independente baldin badaude, baldintza horrek soilik baimendu gabeko aldaketak izan dituzten jarduerari eraginen die.

Esku-hartzea gauzatzean gertatzen diren gainerako gorabehera eta aldaketak dagokion txosten-memoriaren bidez jakinaraziko dira, proiektuan baloratzen ez diren alderdien edo xehetasunetan aldaketa hutsak baitira. Jardueraren finantza-egiaztapen edo -justifikazioaren fasean adierazitako baldintzak betetzen dituzten aldaketak bakarrik joko dira egokitatzat.

G. ESKAERAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskaerak aurkezteko tokia:

Dirulaguntzetarako eskaerak honako toki hauetan aurkezten ahalko dira: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean– Kondestablearen jauregia (Kale Nagusia 2, beheka), erregistro osagarrietan, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozeinetan.

2. Eskaerak aurkezteko epea: Hilabete bat, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aitzina.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko (aurkezpen telematikorako) eskabidez, interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita ordezkapen horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" izapiderako aurreikusitako jarraibideekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4 apartatuak aipatzen dituen agiriak aurkeztu beharko dira.





Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

NORGEHIAGOKAKO

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal dena.



008958481302628991023

Ez da beharrezkoa izanen G.4) apartatuan aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste edozein Administraziok egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu deialdi honetan ezarritako betekizunak betetzen edo agiriak aurkezten, edo bestela, ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen agiriok zer administraziok egin eta hartatik eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere alde zuzenetik ebazpena emanen delarik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Honako hauek frogatzen dituzten egiaztagiria: entitatea legeekin bat eraturik dagoela, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen dutenak, eta eskabidea aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela.

Ez da beharrezkoa izanen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu. Horretarako, IV. eranskineko erantzukizunpeko adierazpena sinatu beharko da.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, izapide telematikoa ezarritako jarraibideekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak horiek, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin baditu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu, dirulaguntza eskatzean egindako adierazpen horretan jasotako datuak egiaztatzeko.



d) Deialdiak aurreikusten duenean eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen talderen bat izateko aukera –horiek publikoak zein pribatuak izaki–, eskaeran berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. Adierazpena izapide telematikoa emandako jarraibideekin bat egingen da. ☒ BAI EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

- Entitatearen identifikazio-fitxa (V.1. ERANSKINA. ENTITATEAREN IDENTIFIKAZIO-FITXA)

- Proiektuaren proposamena egiteko formularioa eta egin beharreko jardueren zerrenda eta aurrekontu osoa (V.2. ERANSKINA. PROIEKTUAREN PROPOSAMENA EGITEKO FORMULARIOA).

- Dirulaguntzaren xedea diren jardueren gastu eta diru-sarreraren aurrekontu xehatua, ereduaren arabera (V.3. ERANSKINA. JARDUERA BAKOITZERAKO BETE BEHARREKO ORRIA)

- Dirulaguntzari egotzi nahi zaizkion zeharkako gastuen zerrenda (V.4. ERANSKINA. ZEHARKAKO GASTUAK).

g) Proiektuan garatu beharreko jarduerak hala eskatzen badute, haurrak eta nerabeak babesteko indarreko legeek ezarritako neurriak betetzen direla aitortzeko erantzukizunpeko adierazpena bete beharko da, baita datuen babesari buruzkoa ere, izapide telematikoa datorrenarekin bat.

Telematikoki egiten ez diren izapideetarako, agiriak jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat kautoak diren kopiak.

Telematikoki egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo kautoak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera, horrek ekartzen ahal dituen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: 1.- Entitate eskatzaileari

dagozkion irizpideak (20 puntu bitarte).

1.1. Proiektua kudeatzeko gaitasun nahikoa eta egiaztatua izatea, kontuan harturik entitateak edo elkarteak zer-nolako azpiegiturak (fisikoak eta espazioari dagozkionak) eta baliabideak (giza-baliabideak, ekonomikoak eta materialak) dituen (5 puntu bitarte).

Maila baxuak: entitatearen baliabide materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak azaltzen ez badira (0 puntu).

Maila ertainak: alderdi horiek azaletik izendatzen edo deskribatzen baditu (3 puntu bitarte). Maila

altuak: alderdi horien deskribapen sakonagoa eta osoa egiten badu (5 puntu bitarte).

1.2. Entitatearen antzinatasuna eta esperientzia aurkeztutakoen antzeko proiektuak kudeatzean, eta proiektu horien oihartzun egiaztatua gizartean (10 puntu bitarte).

Maila baxuak: Urte bat baino gehiagoko antzinatasuna (3 puntu).

Maila ertainak: 3 urtetik gorako eta 8 urtetik beherako antzinatasuna (5 puntu).





Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

NORGEHIAGOKAKO

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal dena.



008958481302628991023



Maila altuak: 8 urte edo gehiagoko antzintasuna (10 puntu).

1.3. Programatutako jardueren iraupena eta irismena (zenbat lagunengan izan dezakeen eragin zuzena) (3 puntu bitarte).

Iraupen urrikoak izan (egun batetik 3 hilabetera bitarte) eta jende gutxi (20 lagun edo gutxiago) biltzen dituzten jarduerak (0 puntu).

Iraupen urrikoak izan (egun 1etik 3 hilabetera bitarte) eta jende ugari (51 lagun edo gehiago) biltzen dituzten jarduerak (1 puntu).

Iraupen luzekoak izan (3 hilabetetik gora) eta jende gutxi (50 lagun edo gutxiago) biltzen dituzten jarduerak (2 puntu). Iraupen luzekoak izan (3 hilabetetik gora) eta jende ugari (51 lagun edo gehiago) biltzen dituzten jarduerak (3 puntu).

1.4. Elkartea eratzen duten kideen kopurua (zuzendaritza-batzordea, boluntarioak eta bazkideak) (2 puntu bitarte)

Maila baxuak. 3 - 10 lagun. (0 puntu).

Maila ertainak. 11-50 lagun (1 puntu). Maila altuak. 51 lagun edo gehiago. (2 puntu).

2.- Proiektuak baloratzeko irizpideak, kalitate teknikoa eta proiektuaren bideragarritasuna (80 puntu bitarte).

2.1. Oinarriak. 10 puntu bitarte.

-0 puntu, oinarriak egon ezean, edo hura ez-espezifikoa bada.

-5 puntu bitarte, deskribapena orokorra izanez gero.

-10 puntu bitarte, proiektuaren berariazko oinarriak aurkeztuz gero, bertan adierazita aurrekariak, testuingurua, ikuspuntua eta jarduketaren lehenespena.

2.2. Helburuak. 10 puntu bitarte.

-0 puntu, helburu argirik egon ezean.

-5 puntu bitarte, helburu orokorrak eta espezifikoak egon eta koherenteak badira proiektuan planteatzen den behararekin.

-10 puntu bitarte, planteatutako helburuak, aurrekoaz gain, operatiboak eta egingarriak badira eta bat badatoz proiektuaren oinarriarekin.

2.3. Jarduerak. 10 puntu bitarte.

-0 puntu, jarduerarik planteatu ezean.

-5 puntu bitarte, aurkeztutako jarduerak berariazkoak, egingarriak eta planteatutako helburuekin koherenteak izanez gero.

-10 puntu bitarte, aurrekoaz gain, adierazten badira erabiliko den metodologia eta teknikak, behar diren baliabideak eta egutegia.

2.4. Aurrekontuaren egokitasuna eta koherentzia. 5 puntu bitarte.

-0 puntu, aurrekonturik aurkeztu ezean, eskatzen den kopurua soilik aurkeztu bada, edo hori ez bada egokitzen edo ez badator bat planteatutako jarduerekin.

-3 puntu bitarte, aurrekontuko partida batzuen azalpena ematen bada.

-5 puntu bitarte, azalpena behar duten partida guztien kalkulua argitzen bada, planteatutako jarduerekin modu koherente eta justifikatuan, eta, gainera, aurkeztutako gastuak deialdi honen bidez diruz laguntzen ahal badira.

2.5. Boluntarioek jardueretan parte-har dezaten sustatzea: 5 puntu bitarte.

-0 puntu, planteatutako proiektuak ez badu boluntario-lana sustatzen edo giza baliabideen artean ez badira boluntarioak aipatzen.

-3 puntu bitarte, boluntarioen beharra aipatuz gero.

-5 puntu bitarte, trebatutako boluntarioak eskura eduki eta proiektua gauzatzeko behar den boluntario-motaren zerrenda bat badago.



Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal dena.



2.6. Ebaluazio-adierazleak. 5 puntu bitarte.

-0 puntu, proiektuaren ebaluazioa adierazi ezean.

-3 puntu bitarte, aurkeztutako ebaluazioa ulergarria izan bai, baina ez badu adierazlerik aurkezten.

-5 puntu bitarte, argi eta garbi adierazten bada garatu beharreko ebaluazio-metodoa, eta jasotzen baditu balorazio-adierazleak eta -parametroak (kualitatiboak edo kuantitatiboak) eta esperotako emaitzak.

2.7. Kolektibo zaurgarriekin egin beharreko jarduerak sustatzea (gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan daudenak, gizarte-zailtasunean dauden adinekoak, desgaitasunen bat dutenak, gizarte-zailtasunean dauden etorkinak, errefuxiatuak, gizarte-zailtasunean dauden emakumeak, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak, etab.). Pertsona horiek parte-hartze zuzena izan beharko dute. 10 puntu bitarte.

-0 puntu, proiektuak ez badu inongo jarduerarik.

-5 puntu bitarte, proiektuak kolektibo horiekin egiteko 1-5 jarduera baditu.

-10 puntu bitarte, proiektuak kolektibo horiekin egiteko 6 jarduera edo gehiago baditu.

2.8. Arrazakeriari eta xenofobiari aurre egitea xede nagusi duten jarduerak. 5 puntu bitarte.

-0 puntu, inongo jarduerarik aurkeztu ezean.

-3 puntu bitarte, 1-3 jarduera aurkeztuz gero.

-5 puntu bitarte, 4 jarduera edo gehiago aurkeztuz gero.

2.9. Jasangarritasun neurriak sartzeari. (Adibidez: sukaldeko tresneria eta baxera berrerabilgarriak eta konpostagarriak erabiltzea, birziklapena kudeatzea, inprimatutako material kopurua gutxitzea, etab.) 5 puntu bitarte.

-0 puntu, inongo jasangarritasun neurriarik aurkeztu ezean.

-3 puntu bitarte, 1 edo 2 neurri aurkeztuz gero.

-5 puntu bitarte, 3 neurri baino gehiago aurkeztuz gero.

3. Euskaraz edo ele bitan egindako jarduerak sustatzea. (Adibidez: azpitituluak erabiltzea, hizkuntzaren inguruko euskarazko materialak edo euskarriak, etab.) 5 puntu bitarte.

-0 puntu, jarduerarik aurkeztu ezean.

-3 puntu bitarte, 1 edo 2 jarduera aurkeztuz gero.

-5 puntu bitarte, 3 jarduera edo gehiago aurkeztuz gero.

2.10. Genero-ikuspegia barne hartzen duten jarduerak sustatzea. 10 puntu bitarte.

-0 puntu, proiektuaren diseinuan eta hura gauzatzean genero-ikuspegia kontuan hartu ezean, edo ez badu hizkuntza ez-sexistarik.

-5 puntu bitarte, proiektuak genero-ikuspegia txertatu badu oinarrietan (esaterako, genero-berdintasuna xede duten helburuak) edo planteatutako jardueretan (genero-berdintasuna sustatzeko berariazko jarduerak, emakumeen partaidetza sustatzekoak, etab.).

-10 puntu bitarte, horrez gain, aurreikusi badira generoak proiektuan duen inpaktuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak (genero-ikuspegia baloratzeko berariazko adierazle kualitatiboak zein kuantitatiboak, sexuen arabera banaturiko datuak, etab.) eta berariaz halakoak adierazten badira.

Ezin izanen dira dirulaguntzen onuradun izan osoko balorazioan (entitatea eta proiektua) gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten elkarteak, eta, horretaz gain, gutxienez 10 eta 40 puntu erdietsi beharko dituzte, hurrenez hurren, entitateari eta proiektuari buruzko irizpideetan.

Ez dira baloratuko deialdiaren xedeari lotzen ez zaion proiektu edo programa batean sarturik dauden jarduketak edo jarduera solteak.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal dena.



008958481302628991023

Eskaerak ebaluatzeko, balorazio-batzorde bat eratuko da, kide hauek osatua:	
Batzordeburua:	Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako eta Kultur Aniztasuneko Alorreko zinegotzi ordezkaria / Iruñeko Udaleko beste zinegotzi ordezkari bat.
Batzordekideak:	
1.	Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako eta Kultur Aniztasuneko Alorreko zuzendaria/Ordezkoa: alor bereko idazkari teknikoa.
2.	Kultur Aniztasuneko teknikari bat/Alor bereko beste teknikari bat.
3.	Herritarren Partaidetzako teknikari bat/Alor bereko beste teknikari bat.
Idazkaria:	Zuzenbidean lizentziaduna, Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako eta Kultur Aniztasuneko Alorrari atxikia/Zuzenbidean Lizentziaduna den Udal Aholkularitza Juridikoko beste pertsona bat.

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat egingen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela ezen pertsona zein entitate onuradunek halakoak izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balorazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) apartatuan aurreikusten diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat egingen du, ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio. Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako eta Kultur Aniztasuneko Alorreko Idazkaritza Teknikoa izanen da prozeduraren instrukzio-organoa, eta ofizioz egingen ditu ebazpen-proposamena emateko behar diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatze beharrezko jotzen dituen jarduketak oro.

Baldin eta instrukzio-organoak edo, hala badagokio, deialdia kudeatzen duen unitateak baloratzen badute aurkeztutako eskabideren batek hobeto erantzuten ahal diela Udalaren beste dirulaguntza-deialdi baten xede edo helburuei, eta deialdi horretara aurkezteko epea oraindik amaitu gabe badago, entitate eskatzaileari eta dagokion Alorrari jakinaraziko diete, entitateak hala eskatuz gero, eskabidea dagokion deialdira helarazi ahal izateko.

Balorazio-batzordeak beharrezko azalpen eta argibide guztiak eskatzen ahalko ditu nahitaezko txostena egin eta baloratzeko.

Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako eta Kultur Aniztasuneko Alorreko zinegotzi ordezkariari dagokio dirulaguntzak emateko ebazpena egitea.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

☐ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta hura eskatzaileei jakinaraziko zaie, bat etorrira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutakoarekin.

☒ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta udal-webgunean argitaratuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluko b) letran agindutakoarekin bat.





NORGEHIAGOKAKO

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal dena.





3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- Tramitatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: BAI ☒ EZ
- ☐ Epea kontatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsizat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2 artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. GASTU DIRUZ LAGUNGARRIAK:

1. Diruz lagungarriak diren gastuen zehaztapena:

Diruz lagungarriak diren gastutzat joko dira diruz lagundutako jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek diruz lagungarriak dira:

1. Zuzeneko gastuak.

a) Jarduerari egozten ahal zaizkion giza-baliabideak. Dirulaguntzak estaltzen ahal ditu jarduerari egotzitako langileei ordaintzeko gastuak, horren xede den proiektuan edo jardueran emandako denborari dagokion proportzioan. Diruz lagundutako jardueratik eratorritakoez bestelako funtzioak eta zereginak ere egiten dituzten erakundeko langileek egindako jardueren kasuan, langile horiek egiten dituzten jardura guztien artean jardura horri dagokion zati proportzionala soilik egotzi ahal izanen da zuzeneko kostu gisa. Zehazten da langileria-gastuari dagokion dirulaguntza, Foru Komunitateko Administrazioan zerbitzuak ematen dituzten profesionalentzat ezarritakoa izanen dela gehienez ere, eta koordinazio-zereginetara esleitutako langileen kasuan, kostu hori gizarte-laneko B maila batetik gorakoa ez den profilarekin parekatuko da. Aurrekontuan, ongi zehaztuta adierazi beharko dira arduraldia proiektuan eta egiten beharreko lanak. Gastu horiek legearen arabera behar den moduan justifikatu beharko dira (nominak, zuzen egindako fakturak dagozkien atxikipenekin, etab.). Prestakuntza-jardueren kasuan, ordu kopurua eta horien kostua jaso beharko dira proiektuan. Ez da inola ere orduko 60 € baino gehiagoko dirulaguntzarik emanen kontzeptu horretarako.

b) Diruz lagundutako jardueren material suntsikorrek eta publizitateak eragindako gastuak: Publizitatetzat ulertzen da zehazki jardura iragartzeko sortutako materialak eta edukiak: kartelak, irratiko iragarkiak, argitalpenak sare sozialetan, hedabideetan eta webguneetan. Diruz lagungarriak diren gastutzat joko dira, berariaz, honako neurri hauek ezartzearen ondorioz sortzen direnak: edalontzi berrerabilgarriak alokatzea edo erostea, baxera konpostagarria edo ekitaldirako ingurumen-aholkularitzarako zerbitzuak kontratatzea.

c) Alokairu-gastuak: jardura garatzeko behar diren lokalenak (jardura egoitza kanpo eginez gero) eta ekipamenduenak (teknikoak, soinua, agertokia, etab.).





Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

NORGEHIAGOKAKO

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal dena.



008958481302628991023

d) Beste gastu batzuk (jarduerari egozten ahal zaizkion prestatzaileen joan-etorriak, dietak, ostatu-gastuak, etab.), gehienez ere 500 euro jarduera bakoitzeko. Ibilgailu partikularra erabiliz gero, kilometro bakoitzeko 0,36 euro ordainduko da.

e) Diruz lagundutako jarduerak egin bitartean mendekotasuna duten pertsonak artatzeak eragindako gastuak (haurtzaindegiak, ludotekak), gehienez ere 500 euro jarduera bakoitzeko.

f) Boluntarioen erantzukizun zibileko aseguru eta istripu-aseguru: deialdi honek diruz lagundutako jarduerak zer-nolako arriskuak sortu eta horiek estaliko dituen erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatzeak eragindako gastua izaten ahalko da dirulaguntzaren xedea, bai eta boluntarioendako istripu-aseguru kontratatzeak eragindakoa ere. Elkarrekin bere jarduera guztiak estaltzen dituen aseguru bat kontratatzen badu, diruz laguntzeko aurkeztu duen programari dagokion alde proportzionala egotziko dio.

h) Aplikazio teknologikoak garatzea edo aurkeztutako proiektuak zati proportzionalan laguntzen dituen webgunearen mantentze-lanak egitea. Webguneak mantentzeko lanen gastuei dagokienez, diruz lagunduko da bakarrik laguntzen duten jarduerarekin zuzenean lotutako gastuaren zatia.

VIII. eranskinak jakitera ematen du diruz lagungarria den aurrekontuaren gehieneko kopurua.

2. Zeharkako gastuak, halakotzat ulertuta jarduera egiteko beharrezkoak diren gastu orokorrak, hala nola lokala alokatzea, argia, gasa, ura, telefonoa, banku-komisioak (dirulaguntzei buruzko ordenantzako 29.7 artikulua jasotakoa salbu), garbiketa eta administrazio-kudeaketa. Gastu horiek kalkulatu dira VIII. eranskinean ezarritakoarekin bat, eta ezin izanen dute defizit aurkeztuaren eta onetsiaren % 15 gaititu. Funtzionamendu-gastuak egozten ahalko dira egoitza Iruñean dutenen kasuan bakarrik.

Diruz lagungarriak diren gastuetan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

☒ BAI ☐ EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere diruz lagunduko:

a) Iruñeko Udalak edo Nafarroako Gobernuak zuzenean edo zeharkako kudeaketa bidez eskaintzen dituzten jarduerak.

b) Elkarrekin langile-gastuak, jarduerak egiteko behar den denboratik haratagokoak (funtzionamendu-gastu gisa ezarritakoa izan ezik), hala nola dietak eta kilometraje-ordaina.

c) Entitatearen barne-funtzionamenduko jarduerak –herritarrei irekita ez daudenek– eragindako gastuak: entitatearen batzarrak, bilerak edo topaketak, barne-prestakuntzako jarduerak, barne-komunikazio eta -informazio bideak, etab.

d) Jardueretara joan edo horietan parte hartu duten pertsonendako lunchek, bazkari-afariek, ardo-dastaketek, ospakizunek, jatetxeetan eta antzekoetan egindako ospakizunek, eta abarrek eragindako gastuak, salbu eta VIII. eranskinean zehaztutakoa.

e) Ez dira diruz lagunduko egun bat baino gehiago irauten duten bidaiak.



f) Jardueretara bertaratzen diren edo horietan parte hartzen duten pertsonendako ekarpenak, diruz zein gauzazkoak. Berariaz baztertzen dira opariei, diru-hobariei, sariei, zozketei, bazkari-afariei edo jenerotan emandako opariei lotutako gastuak. Sari, dohaintza edo beste zeinahi motatako laguntza ekonomikoak ere (bekak eta abar) ez dira diruz lagunduko.

g) Material inbentariagarria erosteak, lokalen mantentze-lanek, altzariak erosteak edo lokalak egokitzeak eragindako gastuak. Inbertsioak: aretoaren balioa handitzen duten ekipo finkoak eta egiturazkoak erostea (berokuntza, aire girotua, klimatizazioa, elektrizitatea, etab.); altzariak zein bulegoko ekipamendua, informatikoa nahiz digitala, erostea; aretoak egokitzeko eta mantentzeko gastuak, besteak beste, margotze- eta konponketa-lanak eragindakoak, eta jantziei, musika instrumentuei eta besteri dagozkienak.

h) Aldizkariak, egutegiak, argitalpenak... editatu edo inprimatzeko gastuak.

i) Filmak, film laburrak, diskoak edo dokumentalak egin eta ekoizteak eragindako gastuak.

j) Kirol lehiaketak antolatzeak eragindako gastuak: dirulaguntzari dagozkion ekipazioak, arropa, baloiak, etab.

k) Jarduerara gonbidatutako pertsonen, artisten eta abarren ostatua, garraioa eta dietak, hitzaldietako hizlariak ez badira.

l) Ibilbideak prestatzeko kilometro-gastuak.

m) Iruñeko udal-mugartetik kanpo egiten diren jarduerak, egun bateko txangoak izan ezik.

2. Diruz lagungarriak diren gastuak egiteko epea: 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra.

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenen egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoa: %50.

Azpik kontratatutako pertsonak edo entitateak onuradunari lotuta daudenean, aipatu kontratazioa merkatuko baldintza normalen pean egin beharko da, eta organo emailearen alde aurreko baimena eskuratu beharko du, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30.7d. artikuluan zehaztutakoarekin bat.

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharrak ☒ BAI ☐ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa: Dirulaguntzak eskatu eta onartutako aurrekontuaren ehuneko bat estaliko du, zeharkako gastuak barne hala badagokio, eta ezin izanen du gainditu proiektuaren kostu osoaren % 75. Entitateak kostuaren % 25 ordaindu beharko du gutxienez, dela funts propioen bidez dela beste dirulaguntza batzuen bidez.





NORGEHIAGOKAKO

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal dena.





Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Deialditik kanpo geldituko dira Iruñeko Udalaren finantzaketa duten proiektuak edo jarduerak, kontratu zein hitzarmenen bidez, edo haien izaera edo edukia dela-eta, Udalaren dirulaguntzetarako deialdi berariazkoagoen xede izaten ahal direnak, L apartatuko h) letran jasotako salbuespena salbu. Gainera, ez dira diruz lagunduko alor beraren edo Udalaren beste alor batzuen finantzaketa eskatu duten jarduerak; jarduera bakoitzean horri lotutako gastu guztiak aintzat hartuko dira.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egingen da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

- ☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarduerak edo jarduerak justifikatu ondorengo
- ☒ ordainketa. Konturako ordainketa:
- ☐ Ordainketa zatikatua:
 - ☒ Ordainketa aurreratua: emandako dirulaguntzaren % 100 ordainduko
 - ☐ da. Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta alde zuzenaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Udalak ofizioz kitatzen ahal izanen ditu kobratzeke dauden zorrak, zenbateko horien konpentsazioaren bidez.

2. Bermeen eraketa:

- ☐ BAI ☒ EZ
- Eratzeko modua eta zenbatekoa:

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

☒ Justifikazio-kontua:

☒ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat). Dirulaguntza jasotzen duten entitate guztiek telematikoki aurkeztu beharko dituzte, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoa (www.pamplona.es/eu) gaitutako izapidearen bitartez, honako hauek: "Pertsona juridikoendako dirulaguntzen justifikazio elektronikoa", artxibo batean diruz lagundutako jardueraren ondorioz egindako gastu guztien frogagiriak, lortutako diru-sarreraren zerrenda eta hartzekodunei egindako ordainketen egiaztagiriak. Formatu elektronikokoak zein formatu fisikokoak kopia eskaneatuak sartuko dira.

Diruz lagundutako jardueraren % 100 justifikatuko da, eta ez dirulaguntzaren zenbatekora iritsi artekoa soilik. Honako hauek aurkeztu beharko dira:





Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

NORGEHIAGOKAKO

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal dena.



008958481302628991023



NORGEHIAGOKAKO

a) Eskabidea. Automatikoki sortuko da izapide telematikoa egitearekin batera.

b) Memoria-txostena, diruz lagundutako eta egindako jardueraren ebaluazioari buruz, horretarako diseinatutako ereduarekin bat: "Memoria-txostena, proiektuaren garapenari buruz". Eredua deialdiari atxikitako VII.1 eranskinean jaso da.

c) Udalaren dirulaguntzaz baliatuta egin diren material iraunkor guztien kopia (argitalpenak, ikus-entzunezkoak, etab.).

d) Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren zerrenda izenpetua eta ordenan zenbakitua, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda (VII.2. eranskina).

Aurreko zerrenda hori egiaztatzeko, dagozkion ziurtagiriak, diruz lagundutako gastu guztien kopia kautoak eta horiek ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu behar dira: fakturak, ordainagiriak, are nominak ere, tributuak nahiz Gizarte Segurantzako kuotak eta balio frogagarria duten bestelako dokumentuak, betiere merkataritzako trafiko juridikoan baliozkotasuna edo administrazio-eraginkortasuna baldin badute eta horien zenbatekoa emandako dirulaguntzaren kargura ordaindu bada, modu korrelatiboan ordenaturik aurreko zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera.

Egindako gastuak osagai guztiak jasotzen dituzten fakturen bitartez egiaztatuko dira, eta inongo kasutan ez dira onartuko ordainagiri hutsak edota kutzako tiketak. Edonola ere, ez da ordaindu izanaren egiaztagiririk aurkeztu beharko gastuaren egiaztagiriko zenbatekoa 100 eurotik beherakoa denean, betiere horien zenbatekoak ez badu diruz lagundutako gastuen % 15 baino gehiago jotzen. Ez da 100 €-tik gorako ordainketarik onartuko eskudirutan.

Fakturak indarrean dauden legeen arabera jaulkiko dira, haietan zehazturik faktura egin duen enpresaren izena eta IFZa, fakturaren jaulkitze-data, kontzeptua, zenbatekoa eta fakturatu diren objektuen edo kontzeptuen xehakapena, aplikatutako Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta jaulkitzen duenaren sinadura. Halaber, PFEZaren atxikipena eta ordainketa ere zehaztuko dira. Monitoreei eta bestelako zerbitzuei lotutako gastuak faktura behar bezala beterik aurkeztuta egiaztatuko dira, betiere zehaztuta ordubeteko prezioa eta zerbitzuan emandako orduen kopurua. Zerbitzu-emaelearen eta hori kontratatzen duen entitatearen ardura izanen da Iruñeko Udalaren Jarduera Ekonomikoen Gaineko zergan alta emana izatea, bai eta PFEZaren atxikipena Foru Ogasunari ordaintzea ere.

e) Zeharkako gastuak justifikatzeko, gastu bakoitzaren izaerari dagozkion ziurtagiriak aurkeztuko dira, ezarritako mugekin bat.

f) Administrazio- eta kudeaketa-gastuak entitatearen Iruñeko egoitzari dagozkionak izanen dira, diruz lagundutako jarduera egiten den aldikoak izanen dira eta harekin bat etorriko dira.

g) Hartzekodunei ordaindu izana egiaztatzen duten ziurtagiriak. Ordaindu izana dagokion banku-agiri bidez egiaztatu behar da, behar bezala sinatutako agiri baten bidez edo, bestela, aurkeztutako fakturak ordaindu egin direla egiaztatzen duen beste agiri bat aurkeztuz.

h) Borondatez aurkez daitekeen beste edozein agiri –idatzizkoa zein grafikoa–, finantzatutako proiektuaren funtzionamendu edo gauzatze egokia egiaztatze aldera.

i) Halakorik behar balitz, ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko geldikinak eta horiei dagozkien berandutze-interesak itzultzekoa.

Hala VII. eranskina nola gainerako justifikazio-agiriak (fakturak, ordainagiriak, etab.) Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan aurkeztuko dira.





Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

NORGEHIAGOKAKO

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal dena.



008958481302628991023

Partaidetzako unitate teknikoak, entitate onuradunak gastuen justifikazioan agertu dituen gastuak aztertu ondoren, justifikazioa onartzeko beharrezkotzat jotzen dituen agiri guztiak aurrez aurreko tramitearen bidez aurkezteko eskatzen ahalko du.

Behin gauzatutako jardueri dagokien justifikazioa aztertu eta gero, unitate tekniko kudeatzaileak balorazio-txosten bat egingen du. Bertan espresuki adierazita geldituko da guztiz bete dela dirulaguntzaren xedea, edo, bestela, zein diren justifikazioa onestea eragozten duten akatsak edo inguruabarrak.

- ☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta. Bestelako edukiak: ☐ BAI ☐ EZ
- ☐ Justifikazio-kontu erraztua.

- ☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

- ☐ Kontabilitateko egoera-orriak aurkeztea (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitateko egoera-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

- ☐ Beste sistemaren bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Behin betiko memoria eta justifikazio-agiriak aurkezteko epea 2027ko urtarrilaren 31n amaituko da (egun hori barne).

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan ageri diren itzularazteko arrazoietako batek ukitzen badu onuraduna, eta apartatu honetan aurreikusitako gainerako kasuetan.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

- Esku-hartzearen esparruan zer emaitza eta jarduera egiteko konpromisoa hartu eta horiek osoki edo parte batez betetzen ez badira.

- Edozein zio dela medio gastuak egiten ez badira, edo horietan funtsezko aldaketak egiten badira, Iruñeko Udalak organo kudeatzailearen bidez horretarako berariazko baimenik eman gabe.

- Dirulaguntza justifikatzeko betebeharra ez betetzeak edo behar bezala ez justifikatzeak, ez-betetze maila eta gainerako inguruabarrak kontuan hartuta, dirulaguntza osorik edo zati batean itzuli beharra ekarriko du, eta, hala badagokio, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galtzea, justifikazioak adierazitako epeetan ez aurkezteagatik.

Onuradunek lortutako betetze-maila nahiko hurbil badago erabateko betetze-mailatik, eta haiek ezbairik gabe erakusten badute beren konpromisoak betetzen ahalegindu direla, itzuli beharreko kopurua proportzionaltasun-printzipioa aplikatuta xedatuko da, halako moduz non jarduera zein heinetan ez den bete eta hainbesteko portzentajea itzuliko baitu onuradunak dirulaguntza.





NORGEHIAGOKAKO

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal dena.



ERREKURTSOEN ARAUBIDEA:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertzeiko errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

R. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

1. Dirulaguntza emateko aintzat hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, edozein kasutan, deialdi honetan baimendutako kasuetatik at beste diru-iturri batzuk eskuratzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzen ahalko da. Baldin eta benetako gastuak eskaeran jasotakoak baino txikiagoak badira eta horien arabera zehaztu bazen dirulaguntzaren zenbatekoa, inguruabar hori aintzat hartuko da dirulaguntzaren zenbatekoa murrizteko, eta kasu horretan aldea itzuli egingen da.
2. Udalaren eta dirulaguntza jasotzen duten entitateen arteko harremanetan sakontzeko, Udaleko teknikariek egingen den jardueraren bat bisitatzen ahalko dute, horrela Iruñeko elkarteek egiten duten lana sakonago ezagutzeko.
3. Datu pertsonalen babesa: Iruñeko Udala da arduradun Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako eta Kultur Aniztasuneko Alorrak emandako dirulaguntzaren kudeaketa egiteko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Datuak, legeek aginduta, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari jakinaraziko zaizkio, eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legearekin bat argitaratuko dira. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeiko Erregistro Orokorrean (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Pribatutasun-politikan (www.pamplona.es) **kontsultatu ditzakezu tratamendu-zerrenda eta informazio gehigarria.**
4. Behin deialdia ebatzita, emandako dirulaguntzari uko egin eta hura itzultzen bada, emandako diru-kantitatea 80/32700/482090 aurrekontu-partidan jasanaraziko da, eta ez da aldatuko gainerako entitate onuradunei emandakoa.

S. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☐ **I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.**

☐ **II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.**

☐ **III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.**

☒ **ERANSKIN OSAGARRIAK.**

IV. eranskina. Erantzukizunpeko adierazpena, galdatutako agirien gainean

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal dena.





V. eranskina. Proiektu edo jardueraren aurkezpena

- V.1. ERANSKINA. Entitatearen identifikazio-fitxa.
- V.2. ERANSKINA. Proiektuaren proposamena egiteko inprimakia.
- V.3. ERANSKINA. Jarduera bakoitzeko bete beharreko orria
- V.4. ERANSKINA. Zeharkako gastuak.

VI. eranskina. Erantzukizunpeko adierazpena, gardentasun-betebeharrari

buruz. VII. eranskina Proiektuaren/jardueraren justifikazioa

- VII.1. ERANSKINA. Memoria-txostena, proiektuaren garapenari buruz.
- VII.2. ERANSKINA. 2026ko proiekturako egindako jarduera bakoitzaren fakturen eta diru-sarreraren fitxa
- VII.3. ERANSKINA. 2026ko proiektuari egotzitako zeharkako gastuetarako fakturen fitxa.
- VII.4. ERANSKINA. Kilometro-gastuen adierazpena (deialdi honek diruz laguntzen dituen elkartearen unean uneko jarduerak egiteko erabilitako ibilgailu pribatuendako bakarrik).

VIII. eranskina. Deialdi honen bidez diruz laguntzen ahal diren aurrekontuaren gehieneko

zenbatekoak. IX. eranskina. Erantzukizunpeko adierazpena: dirulaguntzen justifikazio

telematikoa

OHAR GARRANTZITSUA: Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.





Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

NORGEHIAGOKAKO

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal dena.



008958481302628991023